




MENDEBALDEA (BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA)

•8. ALEA •

2005eko 2. HIRUHILABETEA



◀ Jon Suarez,  
afizioz eta denbora librean  
idazten duen irakaslea



**Bullying-a gure ikastetxeetan**

• Aurrera, ez egin atzera

• Marihuanaz zenbait datu

• Streetball eta BMX

• Guraso Elkartearen txokoa

• Mendebaldeako garbitasuna

• Alberto Morgado eta Iñigo Yarritu

• Agenda 21eko lan sarituak

• Iritzi artikuluak

• Liburuak eta diskoak



**Txomin González Euskadiko  
eskubaloi entrenatzailerik  
nabarmenena 03-04 denboraldian**

Trabajamos con mimo!!



FOTOKOPIAK



Horario ininterrumpido  
7.45 - 20:00

Juntas Generales, 59 (acceso por Arriaga)  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Tel./ Fax: 945 172 687  
E-mail: gurpil@ctv.es

Argitaratzailea: MENDEBALDEA BHIko Prentsa tailerra

Posta Elektronikoa: 010329@hezkuntza.net

Koordinatzaileak: Juanjo Orbegozo eta Patxi Aizpurua

Erredakzio taldea: Oier Azkarraga, Daniel Gutiérrez, Julio Ponce, Xabier Requejo, Adrian González, Endika Landa, Jorge Palomo, Tania Albalejo, Naiara Becerra, Iker Caseras, Saioa Escamilla, Zaira Fernández, Barbara Gómez, Iñaki Ibaibarriaga, Iñaki Martínez, Janire Moreno, Ivan Bergaz, Aratz Castresana, Edgar de Magalhaes, Ander Guerrero, Alberto Morgado, Iker San Vicente, Eneko Bezares, Gorka Elizondo, Alazne Escribano, Itsaso García, Ruth Gutiérrez, Imanol Martínez, Ibon Murga, Ainara Olabe, Aitor Olivera, Saioa Some, Iratxe Torres, Jon Valle, Imanol Veja-Murguía eta Lucas Martínez.



Argazkiak: Edu Arraiet, Mendebaldeako irakasleak.

Maketazioa eta Inprimategia: Gertu. Oñati.

Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza, Lankide Kutxa, Vital Kutxa, Arriaga Liburu-denda, Lakua Centro, Abako Zinemak, La Taberna de Verne, Eroski Bidaiak, La Casa de Mi Abuela, Erro Autobusak, Pelayo Aseguruak, La Vitoriana Okindegia, Gurpil fotokopiak, Garoka taberna, Eroski.

Lakua  
CENTRO



**AGURRA**

**T**lkasturte erdia joan zaigunean, zortzigarren alearekin gatoz zuengana Aste Santuko oporrak ate joka dauzkagula. Oraingo honetan, besteetan bezalaxe, hainbat kontu dakartzagu azpimarratzeko modukoak.

Lehenik, ekintza osagarriak aipatu nahiko genituzke, ikastetxeak bere eremutik kanpo antolatzen dituen jarduerak, hezkuntzarekin, kirolarekin eta kulturarekin lotuta dauden ekintzak.

Bigarrenik, elkarrizketak aipatuko ditugu. Batetik, aldizkari hau egiten duten erredakzio taldeko ikasleok eginak: Bullying-aren inguruan ikastetxeko zuzendariari eginikoa; ikastetxeko irakaslea den Txomin González-ekin egindakoa; erreportajeak..., eta, bestetik, DBHko 1. mailan euskara arloan burutu-ta elkarrizketa onenen argitaratzea, gure nahia baita ikasle guztiak aldizkari honetan lekua izatea; ikasleen beste zenbait lan (Agenda 21eko lan sarituak, maitasun gutunen sariketa, iritzi artikuluak, ingelesezko idazlanak...). Guraso elkartearen orriak ere hor daude, partehartzea sustatuz eta eskolaz kanpoko jardueretako kirol taldeak ezagutzera emanez...

Azkenik, 14. KORRIKA aipatu behar dugu, euskararen aldeko jai erraldoi hori. Martxoaren 17an, Barrutia ikastolarekin batera hartu dugun 1675. kilometro hori egitera animatu nahi zaituztegu. Ondo pasa oporretan!!!

*Nos encontramos en el ecuador del presente curso y las vacaciones de Semana Santa están a la vuelta de la esquina. En este 8º número de Mendeberrí, al igual que en los anteriores, incluimos algunos trabajos que son dignos de mención.*

*En primer lugar tenemos que citar las actividades complementarias, aquellas que el centro organiza fuera del espacio escolar y están relacionadas con la educación, cultura y deporte.*

*En segundo lugar, citaremos las entrevistas. Por un lado, las realizadas por el alumnado que conforma el comité de redacción de la revista: entrevista al director de centro sobre el Bullying; la efectuada al profesor Txomin González; reportajes..., y, por otro, la publicación de las mejores entrevistas efectuadas por los/as alumnos/as de 1º de la ESO en el área de Euskara, pues nuestro deseo es que todos esos trabajos tengan cabida en esta revista; aportaciones de otra índole (los premiados en el concurso de la Agenda 21, concurso de cartas de amor, artículos de opinión, trabajos en inglés...). También encontraremos las dos páginas de la APA, fomentando la participación en el quehacer diario del instituto y dando a conocer los equipos deportivos de las actividades extraescolares.*

*Finalmente, citaremos la 14ª edición de la KORRIKA, esa gran fiesta del euskara. Contamos con vosotros y vosotras para correr el km 1675 (desde la entrada del Gobierno Vasco –Donostia 1- hasta la calle Duque de Wellington, junto al colegio San Prudencio), que hemos comprado en colaboración con la ikastola Barrutia. Felices vacaciones!!!*

**Consumibles**  
**Tapia**

TEL: 947 33 03 08  
FAX: 947 34 71 09

E-mail: [consumibletapia@terra.es](mailto:consumibletapia@terra.es)

Miranda de Ebro (BURGOS)

## Bullynga Gasteizko Ikastxeetan: Ikasleen arteko arazoak?

*Ikasturte honen hasieran ikastetxeetan hitzetik hortzera ibili den gaia izan da bullying-a. Baina zertaz ari gara hitz hau erabiltzen dugunean? Guzti honetaz hitz egiteko Ramón Mateorengana, ikastetxeko zuzendariarengana, jo dugu bere iritzia azal diezagun.*

**Mendeberrri. Zer pentsatzen duzu bullying-ari buruz?**

Ramón Mateo: Oso egoera txarra dela. Gure institutuan saihesten saiatzen gara. Ikasleen adinarekin lotuta dago. Zergatiak oso zabalak dira, baina ekidin behar ditugu, denon eginkizuna da.

**M-Zeri deitzen zaio bullying-a?**

R.M.: Ikasleen arteko tratu txarrei, erasoei, irainei, etab. Erasotzaileak erasotzen dutenak dira eta biktimak eraso jasaten dutenak.

**M.: Iraganean eta orain berdin jokatu al da gai honen inguruan?**

R.M.: Nire ustez eraso hauek beti gertatu izan dira. Iraganean ez ziren zabaltzen, ezkutuan geratzen baitziren. Gaur egun, ordea, askoz gehiago zabaltzen dira, beti izaten da gaizki pasatzen ari den norbait (taldeetik banatuta dagoelako, harekin sartzen direlako...). Hau saihesteko irakasle talde bat sortu ze iaz, eta aurten eskolaz kanpoko ikastaro bat egin du klaustro osoak.

**M.: Noizbait ikusi duzu arazo hau institutuan?**

R.M.: Ez dut inoiz ikusi, baina gertatzen dira noizbehinka, eta orduan konpontzen ahalegintzen gara.

**M.: Noizbait gertatuko balitz, zer egingo zenuke?**

R.M.: Lehenik arreta guztia eman. Biktimari babes eman ondoren, ikasleekin banan-banan hitz egin beharko genuke arazoari aurre egiteko. Erasotzailearen jarrerak berdin jarraituko balu, araudiak esaten duena egin beharko genuke.

**M.: Egiten dutenek zergatik egiten dutela uste duzu?**

R.M.: Arrazoi asko daude. Batzuetan duten nortasunagatik edo izaeragatik. Beti pertsona ahulei egiten diete. Etxeko egoeragatik izan daiteke.

**M.: Zer pentsatzen duzu Jokinen kasuari buruz?**

R.M.: Tamalgarria da benetan. Gurasoentzat oso gogorra eta askoz gehiago Jokinek bizi izan zuen egoera ikusita. Askotan jasan behar izan zuen gazte honek azken egunetan, bere biziari amaiera emateraino iristeko.



**M.: Irakasleen eta ikasleen errua izan al zen ezer egin ez zutelako?**

R.M.: Errudunak erasotzaileak dira beti. Ikastetxea ez da erruduna eta irakasleek arazoa ezagutu balute, laster konpontzen saiatuko ziren. Nire ustez ez zuten garaiz jakin.

**M.: Irakasleen eta ikasleen jarrera zuzena izan al zen?**

R.M.: Ikasleena ez zen batere egokia izan. Besteek ezin zuten hau onartu eta berehala irakasleengana edo gurasoengana jo behar zuten, oso egoera larria baitzen.

**M.: Jokinek bere burua hauen erruz bota zuela pentsatzen al duzu? Zergatik?**

R.M.: Errudunak erasotzaileak dira erasotzeagatik, eta gazteak egin zuena ikasleek ezer esan ez zutelako egingo zuela pentsatzen dut.

**M.: Zure inguruko norbaitek gaizki pasatu al du arazo honengatik?**

R.M.: Irakasleek ere noizbehinka jasaten dugu geurea. Fisikoki ez, baina bai irainak, begiradak etab. Baina horri bullying-a deitzea gehiegizkoa litzateke.

**M.: Zer gertatzen zaie bullying-a egiten duten ikasleei?**

R.M.: Askotan oso egoera txarretan inplikaturatuta ibiltzen direla. Talde banaketa, psikologo bat etab. Biktimak ez badu egoera jasaten, bere buruaz beste egitera iritsi daiteke, eta batzuei arrastoa bizi osoarako geratzen zaie.

**M.: Erasotzaileek jarritako zigorrekin zerbait ikasten dutela pentsatzen al duzu?**

R.M.: Batzuetan bai, eta beste batzuetan ez. Nire ustez zigorrek bi helburu dituzte: lehena, desoreka sortu duen akatsa konpontzea eta, bigarrena, pentsaraztea. Ikastetxean zigorrak saihesten saiatzen gara. Baina arazoak eta jarrerak aldatzen ez badira, orduan zigorrera jotzen dugu.

## AURRERA, ez egin atzera!

Aurrera futbol klubak arazo ekonomiko ugari izan ditu azken bolada honetan. Arazo hauek, ia-ia, Aurrera desagertarazi dute: klubeko lehendakariak diru guztia 2.B mailako taldea 2.A mailara igotzeko gastatu zuen, baina lortu ez zuten, zorrak agertu ziren. Gainera, udaletxeak urtero ordaindu behar zuena ordaintzen ez zuenez, zorrak areagotu ziren. Orduan, Aurrera klubari bururatu zitzaion elkarte bat sortzea, hainbat lekutatik dirua lortzeko: gabonetako loteria salduz, telebistan programa bat eginez... Horrela, elkarteari esker, Aurrerak urte bat gehiago iraun zuen.

Oraindik ere udaletxeak dirua ematen ez zuenez, Aurrerantz elkarteari bururatu zitzaion manifestazioak egitea. Manifestazio deigarriena udaletxearen aurrean dagoen plazan gertatu zena izan zen.

Bukatzeko, bi urte pasatu dira Aurrera kluba arazoa konpondu nahian, baina azkenean udaletxeak egin beharrekoa egin du: dirua eman du. Hau guztia argitzeko Aurrerantz elkarteari idazkariarekin egon gara, Koldo izenekoa, eta galdera batzuk egin dizkiogu.

**Mendeberri: Zergatik sartu zen Aurrera kluba arazo larrian?**

Koldo: Galdera honek erantzun bakarra dauka: Aurrerako lehendakariak diru guztia

2.B mailako taldean gastatu zuen 2.A mailara igotzeko, baina gutxiagatik ez zuen lortu. Gainera, udaletxeak eman behar zuen dirua ez zuen ematen eta, orduan, bankuko kontuak blokeatu ziren.

**M: Zer dela eta jaitsi zen 2.B mailan zegoen taldea 3. mailara?**

K: Aurreko galderan esan dudana bezala, arazo ekonomikoak agertu ziren eta 2.B

mailako taldea mantentzeko diru asko behar zen. Beraz, arazo ekonomikoak zirela medio 3. mailra jeitsi zen.

**M: Nola sortu zen Aurrerantz Elkartea?**

K: Aurrerantz Elkartea oso era bitxian sortu zen. Gas-teizko festak ziren eta nire sakelako telefonora deitu zidaten Aurrerantz elkarteari sekretarioa izateko. Olanbe instalazioetara joan nintzen eta han aurkitu nituen kide guztiak.

**M: Zer da Aurrerantz Elkartea?**

K: Aurrerantz Elkartea dirua lortzeko sortu zen: adibidez, gabonetarako loteria egin dugu, tabernetan itxulapikoak jarri ditugu etab. Aurrerantz elkarteari ondorioz Aurrera kluba urte bateko bizia izan du.

**M: Ze proiektu utzi behar izan zen amaitu gabe arazoak heltzean?**

K: Proiektu dezente utzi behar izan genituen amaitu gabe, baina garrantzitsuena polikiroldegia da. Polikiroldegia kanpotik eginda dago, baina barrutik ez. Barruan belar artifiziala dago gauza askoren artean.

**M: Noiz jarriko dira martxan berriro polikiroldegiko lanak?**

K: Eraikuntza lanak orain dela hilabete hasi ziren, baina oso motel doaz eta barrutik lehen bezala dago. Bakarrik kanpokoak modelatu dute, ate berriak jarri.

**M: Zenbat talde daude Aurrera taldean?**

K: Aurrera taldean talde asko daude: futbolari dagokionez, 14 talde daude adinaren arabera sailkatuta eta hockeyari dagokionez, talde bat.

**M: Zenbat zelai daude Olanbe instalazioetan?**

K: Olanben tamaina askotako zelaiak daude: futbol 5 eko zelai bat, futbol 7 ko 6 zelai eta futbol 11 ko 5. Gainera hockeyrako beste bat.

**M: Zein da Aurrera klubaren gaur egungo egoera?**

K: Gaur egun arazoa konpontzen ari da, baina oraindik ere gauza asko daude lehenengo egoerara eramateko. Adibidez, garbitzaileak greban daude eta 3. mailako zelaiak konpondu behar da.

**M: Ia-ia arazoa konponduta, Aurrera klubak zuen lana eskertu du?**

K: Aurrera klubak esker onak eman dizkiugu Aurrerantz elkarteari eta, gainera, hurrengo astean afari bat egingo dugu zuzendaritzakoak eta Aurrerantz elkarteari kideak.





# Jon Suarez: «Afizioz idazten d



*Jon Suarezzi elkarrizketa bat egitera joan ginen. Bagenekien bi lanbide zituela: irakaslea eta idazlea. Jon Elgoibartarra da eta 1962. urtean jaio zen familia euskaldun batean. Bere lehenengo hizkuntza euskara izan zen. Gipuzkoar asko bezala, 1983. urtean Gasteizera bizitzera etorri zen. Gaur egun P.I. Barrutia ikastolan aurkituko dugu irakasle.*

## *Badakigu bi lanbide dituzula: irakastea eta idaztea*

Nik ez dut uste nire bigarren lanbidea denik idaztearena. Afizioz idazten dut, hobby bat izango balitz bezala, eta ikastolara ofizioz etortzen naiz. Letra batean bakarrik dago ezberdintasuna, baina oso ezberdintasun inportantea da.

## *Idazle eta irakasle zarela badakigu, ondo eramaten da hori?*

Gauza onak eta txarrak ditu, gauza onak dira zuengandik ideiak hartzen ditudalako edo zuek ematen dizkidazuelako ideiak, ikasleok, eta badakit ze gauza gustatzen zaizkizuen irakurtzea eta ze gauza ez; alde horretatik lagungarria da, baina, beste aldetik, irakaslea izateak ordu asko eskatzen ditu eta orduan idazteko oso ordu gutxi gelditzen dira, ikastola, gero familia, gero eguneroko bizitzan egin behar diren gauzak. idazteko gaueko ordu txikiak bakarrik zaizkit, eta gaueko ordu txikietan hobe da lo egitea.

## *Irakasle eta idazle izaten jarraituko duzu?*

Irakasle izaten jarraituko dut, idazle izaten ez dakit. Idazten jarraituko dut, baina ez dakit argitaratuko dudala ala ez.

## *Askotan bidaltzen dizkigute idazlanak, zuri ere gustatzen zitzaizkizun?*

Idaztea gustatzen zitzaidan eta horregatik hasi nintzen idazten.

## *Noiz hasi zinen benetan idazle izaten?*

Oso berandu hasi nintzen idazten, 1996an argitaratu nuen lehenengo liburua, idazten lehenago hasi nintzen, beti idazten nuen etxean, baina niri tontakeriak iruditzen zitzaizkidan gauzak, edo ipuinxo bat, baina gero zakarrontzian bukatzen duten horietakoak.

## *Nola sortu zitzaizun gogoak?*

Beti eduki dut idazteko gogoak, lagun bati utzi nion nik idatzitako ipuin bat eta berak esan zidan bidaltzeko argitalexte batera. Ezetz esan zidaten ez zitzaizela gustatu, baina bigarreanean baietz esan zuten.



*La Casa De  
Mi Abuela*

Donosti, 17 • Teléfono 945 177 277  
01010 VITORIA-GASTEIZ

# lut eta ofizioz etortzen naiz ikastolara»

*Ikasketa asko egin behar izan zenituen idazlea izateko?*

Idazlea izateko ez da ikasketa berezirik egin behar, idazlea izan daiteke ikasketa pilo bat dituen edo ikasketarik ez dituen ere; idaztea eta idaztea, hori da truko bakarra.

*Irakurketa inportantea dela esan digute. Zuk liburu asko irakurri dituzu?*

Bai, nik asko irakurtzen dut. Orain bi liburu batera irakurtzen ari naiz, bat euskaraz eta bestea erdaraz, edo bat poesia liburu eta beste bat eleberria.

*Zein liburu idatzi dituzu eta zeintzuk? Esaiguzu batzuk.*

Sei edo zazpi idatzi ditut, 96an “Kaixo Mirna” ; 97an “Saguarekin klik” ; 98an “Eta alkatea” ; gero “Ortzadarraren kantua” eta gero bi urte egon nintzen idatzi gabe, edo argitaratu gabe, eta gero 2002an “Luzifer” eta poesia liburu bat “Ilbetea dilindan”. Beste liburu batzuetan nire poesiatxo batzuk sartuta daude, baina idazle askorenak dira; hamar edo hamabi idazle biltzen gara, bakoitzak hiru edo lau poema idazten ditugu eta gero denak liburu batean elkartuta, horrelako bi liburu egin ditut.

*Guk “Ortzadarraren kantua” irakurri genuen duela urte batzuk. Nola asmatu zenuen edo nondik etorri zitzaizun inspirazioa?*

Ba, seguraski, kotxean gidatzen ari nintzela, gehienetan horrela gertatzen zaidalako, kotxea gidatzen ari naizela etortzen zait ideia bat eta horrela izan zela uste dut, ikastolatik irten eta etxerako bidean ikusi nituela argi kable batzuen gainean txori batzuk, eta iruditu zitzaidan pentagrama baten

marraskia zela eta hortik ideari tiraka eta folio batean idatzi lehenengo, bost edo sei lerro horiek luzatuz eta luzatuz eta gauza berriak erantsiz, eta azkenean erabaki arte liburu bukatuta dagoela.

*Horrelakoak idaztea gustatzen zaizu edo gaiak aldatzen dituzu?*

Gaiak aldatzen ditut, eta gainera orain gehiago idazten dut poesia, umeentzako poesia. Aspaldian ez dut ipuinik idatzi. “Ortzadarraren Kantua”ren ondoren idatzi nuen “Luzifer”.

*Liburu bat idazten duzunean, murgilduta egoten zara istorioan?*

Bai, gehiegi gainera. Batzuetan kezkatu egiten nau. Bai, bai, guztiz murgilduta zaude eta askotan horretan bakarrik pentsatzen ari zara eta ezin zara egun guztia egon horretan pentsatzen eta horri bueltak ematen: zein pertsonai sartu, zer egin, besteak zer esan behar duen, nondik atera hau, eta abar. Ipuin bat idazten nuenean, gau eta egun horretan pentsatzen bukatu arte. Poemekin ez da hori gertatzen, poema batean sortzen da ideia, pum! Irteten da, konpontzen duzu pixkat eta gero, handik egun edo aste batzuetara, berriro hartzen duzu konponketak egiteko edo aldaketak egiteko eta bukatuta, bueltak eman gabe.

*Momentu honetan zerbait idazten ari zara?*

Ez, ez naiz ezer idazten ari, batzuetan idazten dut poema txikiren bat eta karpetetan eta kajoian gordetzen ditut, baina asmo zehatzik gabe.

*Bukatzeko, zein idazle euskaldun dituzu zuk gustuko?*

Bereiztu egin behar da, gauza bat da haur literatura, umeentzako idazten dutenak. Niretzat onena Juan Kruz Igerabide da, beste gauza bat da helduen literatura eta hor ere nik bereizketa egingo nuke: nobela edo poesia. Nik poesia asko irakurtzen dut, orduan nobelan, niri asko gustatzen zait Andu Lertxundi edo Saizarbitoria eta, idazle bat asko gustatzen zaidana Julen Gabiria da. Gero poesian, beno, poesian asko ditut oso gustuko, asko.

**Ainhoa Garcia de Albeniz  
Oihane Mora  
Paula González  
Amaia Vicarro.**



# Marihuanaz zenbait datu



Landare hau aintzina-aintzina erabiltzen da (erlijio erritoetan, medikuntzan eta jai-giroan). Arropa egiteko ere erabili izan da.

Kristautasunaren hedapenarekin, bere erabilpena debekatu egin zen (Asia eta Afrikan erretzen jarraitzen zen) zonalde batzuetan.

Europan jai girorako berreskuratu zuten, idazle eta artista batzuen partetik (Baudelaire eta Delacroix).

Aluzinogenoekin batera cannabis-aren deribatuak mugimendu hippy-an erabilia izan zen 60. hamarkadan. Egun, gehien kontsumitutako cannabis-aren deribatuak haxis-a eta marihuana dira.

## DESKRIBAPENA

Landarea berdea da, bere hosto kopurua bakoitia delarik. Berrogeita hamar zentimetro eta 200zentimetro bitartean neurtzen du. Landareak ile antzeko batzuk ditu, marroiak gehienetan, baina batzuetan zuriak izan daitezke; arraroa da beltzak edo moreak aurkitzea, baina aurki daitezke.



## EFEKTUAK

-Efektu psikologikoak. Hainbat sentsazio sentitzen dira: erlaxazioa, lotsa galtzea, barregura, denbora oso motel pasatzen dela sentitzea, logura, alterazioa eta funtzio konplexuak betetzeko zailtasunak: argi hitz egiteko zailtasunak, berehalako kontzentrazio ahalmena galtzea, ikasteko prozesuak.

-Efektu fisiologikoak. Zenbait erreakzio organiko ematen dira: jateko gogoia, begi gorri distiratsuak, logura, aho lehorra...

## ARRISKUAK

-Alde psikologikoan. Egunero kontsumitzen bada, hainbat funtzio murrizten ditu: ikasterakotan, memorian eta kontzentrazioan. Gauza bera gertatzen da burua argi eta koordinazioa psikomotorra behar duten zeregin zailetan; esate baterako: auto edo motor bat gidatu, aldazio batera igo etab. moduko ekin-tzetan.

-Alde organikoan:

1-Arnasketa arazoa: ez-tul kronika, bronkitisa, ohiko kontsumitzaileetan gertatzen da.

2-Bihotzeko arazoak: hipertentsioa duten pertsonen osasunaren okertzea.



## MARIHUANAREN MEDIKUNTZA ERABILERA

Egun marihuanaren erabilera terapeutikoa aztertzen ari dira (glaukomaren, kimioterapiaren eta ihesaren efektuen kontra erabiltzen da).

Gainera, gero eta gehiago erabiltzen badugu, bere efektuak murrizten dira. Medikuek ez du erretzeko marihuana gomendatuko, baizik eta pilulak edo xarabeak.

## LEHORTZEKO ETA ERRETZEKO ERA

Jendeak etxean landatutako marihuana erretzen du eta tabakoarekin edo tabakorik gabe.

Marihuana erretzeko lehortu behar da.

## BIBLIOGRAFIA:

*Drogas. +información -riesgos. Tu guía. (Edita: Ministerio del interior. Colabora: Correos).*



La Vitoriana

panadería pastelería · okindegia gozotegia



## Txomin: «Betidanik izan dut gogoko irakastea, entrenatzaile eta irakasle izatea»

*Txomin González Mendebaldeako irakasle bat da, gurekin 25 urte daramatza eta lau gauzatan egiten du lan. Institutuko prebentziorako arduraduna da, talde espezifikoa ematen du eskola, klase arruntetan ere bai, eta, azkenik, eskubaloiko entrenatzailea da. Euskal Eskubaloi Federazioak Euskadiko Entrenatzaile nabarmena izendatu zuen 2003-04 denboraldian. Aitzakia hori hartuta berarengana jo dugu.*

**Mendebaldea:** Noiz pentsatu zenuen entrenatzaile izatea?

Txomin: Betidanik, gogoko dudalako irakastea; orduan, betidanik pentsatu dut irakasle izatea.

**M:** Noiz hasi zinen?

T: Orain dela 32 urte.

**M:** Non entrenatzen duzu zure taldea?

T: Hemen, institutuan, eta baita Sansomendiko kiroldegian ere.

**M:** Zenbat dira taldean?

T: Aurten hiru talde ditut, 27 neska, eta guztiak institutu honetakoak dira. Beste batzuk, aldiz, polikiroldegira joaten dira

**M.:** Zertan jolasten dute?

T: Eskubaloian.

**M:** Noiz entrenatzen duzu?

T: Ia, ia egunero, beraiek dira aukeratu behar dituztenak orduak, baina gutxienez 2 ordu astero, edo asteartero edo ostegunetako patioetan. Gero astelehen edo astearteetako jantokiko orduetan eta, bukatzeko, astearteetan eta ostiraletan 17,00etatik 18,00etara, Sansomendiko kiroldegian.

**M:** Baduzu nahikoa asti talde bakoitzari bere denbora emateko?

T: Adin honekin ez da entrenatzen talde bezala, baizik eta bakarka, teoria edo teknika.

**M:** Zuretzako denbora ba al duzu?

T: Beno, niretzako hori polita denez, hor dibertitzen naiz entrenatzen, jokalaria gustura daudenean eta gauzak ondo egiten dituztenean.

**M:** Nork eman zizun aukera hau zure proposamena egiteko?

T: Taldeak ateratzeko ni neu joaten naiz klasez-klasez.

**M:** Partiduak egiten dituzue?

T: Bai, larunbatero. Alde batetik, izan daitezke partidu ofizialak eta, bestetik, lagun arteko partiduak eta leku guztietara joaten gara.

**M:** Eta horretaz aparte, ikastetxean, gauza gehiago egiten dituzu?

T: Klaseak eman talde espezifikoa edo berariatzko taldean eta gero ziurtasun eta prebentziorako arduraduna edo laguntzailea naiz.

**M:** Kirolen bat praktikatzen duzu?

T: Guztiak: palaz, futbitoan, eskubaloian edozer gauza, baina ofizialki palaz.

### k a t e m o t z e a n

**M:** Mendia ala hondartza?

T: Mendia.

**M:** Uda ala negua?

T: Uda.

**M:** Zein kolore duzu gustuko?

T: Berdea.

**M:** Janari bat?

T: Edozein gozoki.

**M:** Pelikula?

T: Abenturazko edozein film.

**M:** Liburu bat?

T: Bi anaia.

**M:** Gustuko kirola?

T: Ikusteko saskibaloia eta jokatzeoko pala.

**M:** Oinez, kotxez edo bizikletaz?

T: Bizikletaz





# Streetball

*"Streetball-a" edo "kaleetako saskibaloia" saskibaloira jolasteko beste era bat da. Edozein tokitan jolas daiteke eta Ameriketara jarraitzaile ugari ditu, hemen hainbeste ez baditu ere.*

Streetballen NBAan eta ACBan baino ikuskizun gehiago dago: dribling gehiago, mate zoragarriak... Kirol honetan saskibaloia arruntan bezala jolasten da, baina urratsak, bikoitzak eta falta gutxiago hartzen dira kon-tuan.

Edozein lekutan jolas daiteke, saski bat edo bi, gutxienez, beharrezkoak dira. Lekurik ezagunenak hauek dira: Rucker Park eta Benice Beach.

Rucker Park: Hemen streetballik onena jokatzen da. NBAko jokalaririk askok egungo mailara iritsi aurretik, hemen jokatutakoak dira. Baina horren ondoren, NBA-ko jokalaririk asko, barregarri ez geratzen, ez dira hemen jokatzen ausartzen. Zelai hau New Yorken erdian kokatuta dago eta streetballen munduan ezagunena da. Zelai honetatik jokalaririk asko igaro dira. Hauek dira ezagunenak: Allen Iverson, Stephon Marbury, Vince Carter...



## MATERIALA

Jolasteko saskibaloiko baloia behar da, saski bat edo bi, ondo pasatu nahi duten lagunak, jolasteko gogoia eta fisiko ona izatea.

- Highoctane
- Hot sauce
- Half man half magazine
- 50 cent
- The professor

Hot Sauce: Philip Champion izeneko mutiko beltzaren bat da. 1,86 metroko altuerarekin baloia sarean sartu ahal du mate batekin. Berak streetballen munduan mugimendu asko asmatu ditu. Gai honetaz ezagutzen duenari galdetzen badiozu, munduko onenatarikoa dela esango dizu.



## TALDEAK

Talde ugari daude streetballaren munduan. Hauek dira ezagunenak:

- AND 1 mixtape
- Nike Streetball
- Streetball Crew
- Harlem Globetrotters
- Streetball Style

## JOKALARIAK

Jokalaririk ezagunenak hauek dira:

- Skip to my lou

## WEB ORRIAK

Streetballaren munduan web orri ugari daude. Web hauetan bideoak ere aurkitu ahal dituzue:

- [www.streetflavour.com](http://www.streetflavour.com)
- [www.and1.com](http://www.and1.com)
- [www.streetballstyle.com](http://www.streetballstyle.com)
- [www.nikebasketball.com](http://www.nikebasketball.com)

# BMX

BMX-ak bizikleta mota batzuk dira akrobazietarako balio dutenak. Bizikleta hauek zenbait gauza berezi dituzte: piruloak, eskulekua 360 grado biratzen uzten duten galga edo frenoak. Ez daukate martxarik, gurpilak zabalagoak dira, txikiak dira, talla bakarrekoak, eta eserlekua bizikleta normalak baino beherago daukate.

Bizikleta hauetan saltoak, piruetak, etab. egin daitezke eta, horregatik, askotan eror zaitezke. Dena dela, beti dago bizikletari piezak aldatzeko aukera; hobeak, noski.

Kirol hau egiteko arropa zabala, bakeroak eta zapata zabalak erabiltzen dira.

Beste kirol guztietan bezala, hemen ere, lehiaketak egiten dira eta hainbat kategoriatan banatzen dira: rampa, street, etab. Sari moduan, trofeo mordoa egoten dira eta hilabatero egiten dira torneo hauek. Irabazten baduzu, tresneriak oparitzen dizkizute bizikletarentzat.



Pirueta mota asko daude: zalditxoak, saltoak... Saltoak egiteko abiada hartu behar da, gero eskuak eta hankak jaso eta salto txikitxo eman. Zalditxoak egiteko, berriz, saltoen moduan egin behar ditugu, hankak eta eskuekin bakarrik indar egin, baina eskuekin indarra egin behar dira atzerantz. Pirueta gehiago daude, baina ez ditugu hemen guztiak esango, bestela orri asko idatzi beharko genituzke. Esan ditugun bi modalitate horiek hasi berrientzat dira. Bizikletak oso onak dira kirola egiteko; gainera, piruetak egite-rakoan, hankak, besoak..., indartzen dituzu.



# Guraso elkartearen txokoa

A la vuelta del parón de Navidad volvemos a arrancar el motor de la Asociación, y aunque no hay grandes novedades en el trabajo de las diferentes comisiones, os comentamos algunas informaciones de vuestro interés.

▼ **LIBURTXO.**- Los miembros de esta comisión mantienen contactos con DENON ESKOLA, pues este intento de reciclar libros de texto se va a llevar a cabo en 17 centros públicos. Lo previsto para este año es reciclar los libros de lectura de las asignaturas de Lengua Castellana, Euskera e Inglés, que se recogerán al final de curso. Conoceréis los detalles de esta iniciativa.

▼ **VIAJES DE ESTUDIOS.**- Un grupo de padres y madres supervisa la iniciativa de un grupo de alumnas y alumnos de 4º de ESO para realizar un viaje. Hay que estar ahí, negociar y llegar a acuerdos. Queremos que las conclusiones que se saquen de esta experiencia nos ayuden a disponer de criterios para posibles futuras iniciativas.

▼ **SEGURIDAD EN DESPLAZAMIENTOS.** Los miembros de esta comisión además de presentar escritos de petición, han mantenido contactos con los responsables de tráfico del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para lograr mejoras en las infraestructuras viales en la proximidad de nuestro centro. Por de pronto ya se han instalado semáforos en uno de los lugares críticos: en la misma ronda de circunvalación, en la esquina del Gobierno Vasco.

▼ **EXTRAESCOLARES.** Esta comisión, trata de consolidar las actividades que se desarrollan en la actualidad. Aunque la respuesta es diversa ahí están los grupos de Balonmano, Baloncesto chicos y chicas, Fútbol y Aeróbic. De cara al próximo curso intentaremos presentar una oferta de extraescolares adaptada a los intereses de los alumnos y alumnas.

▼ **EUSKARA.**-De la encuesta realizada entre los alumnos para conocer la demanda de extraescolares en



Euskara, se observa una demanda de actividades como las salidas al monte o el teatro. Como decíamos antes, se trata de ampliar la oferta de actividades de cara al próximo curso.

▼ **CONVIVENCIA-BULLYING.**- Está previsto realizar el cuarto de los encuentros en torno a este tema el próximo miércoles 16 de marzo a las 7 de la tarde. Allí, junto con miembros del equipo educativo del centro, trataremos de llegar a algunas conclusiones prácticas sobre lo vivido durante este curso 2004-2005. Seguimos animándoos a detectar lo mas precozmente este tipo de situaciones, por lo que, además de orientaros al tutor o tutora de vuestro hijo o hija, os recordamos la existencia de un buzón a tal efecto y de una dirección de correo electrónico que es: mendabaldeabizi@hotmail.com

**Sufritzen ari denari  
laguntzea ez da salatari izatea  
Si alguien sufre... ayudar no es chivarse  
mendabaldeabizi@hotmail.com**




# EROSKI

# Saskibaloiko mutilak



**Laura eta Nazareth lagunduta hona hemen Saskibaloieko mutilak bere entrenatzilea Jonekin: Alain, Aitor, Josu, Joseba, Dani, Paulo, Julen, Elan, Andoni, Borja Iñigo eta Mikel. Ligaren asken txanpa honetan kili-kolo doaz, baina egiten ari diren lanarekin emaitza onak helduko dira inolako zalantzarik gabe. Datorren aldizkarian neskak izando dira protagonistak.**



*bidaiia ona!!!*

**VERRO  
AUTOBUSAK**

Foruak 18 ☎ 945 300 238

**AGURAIN**



# Mendebaldeko garbitasuna

*Mendebaldean ikasleentzat garbitasuna ez da arazo larria, baina hala ere, inkesta bat proposatu diegu, 1.2.,3. mailako ikasle batzuei.*

1. Uste duzu Mendebaldea garbi egoten dela? Zergatik?
2. Garbitasunarekin lotuta zer hobetuko zenuke?
3. Gelak maizago garbitu behar direla uste duzu?
4. Ikasleok ere horretan parte hartu behar dugula uste duzu?




**OIER GUTIERREZ / 1.D**

1. Bai, nire ustez ez dagoelako paperik.
2. Listuak ez botatzea.
3. Bai, oso errez zikintzen baitira.
4. Ez, bestela zertan arituko dira garbitzaileak?

**UNAI SANCHEZ / 2.A**

1. Ez, pasa den egunean sagar bat topatu nuen.
2. Zikintzen duten ikasleak ikas-tetxetik bota.
3. Bai, egunero zikinkeria aurkitzen dugu gelan.
4. Bai, gu gara zikintzen dugunak



**NEREA JIMENEZ / 1.E**

1. Ez, asko zikintzen dugulako eta gauza asko botatzen ditugulako lurrera.
2. Gauza gutxiago lurrera botatzea.
3. Bai, askoz gehiago.
4. Ez, garbitzaileek garbitu behar dutelako




**XABI VALERO / 3.C**

1. Ez, patioa oso zikina dagoelako.
2. Zaborra lurrera botatzen duenari falta arina ipintzea.
3. Ez, nahiko garbi egoten direlako.
4. Ez, horretarako garbitzaileak daudelako.



